



## ENE BIHOTZA LEHERTZEAN ... SINESTEN DUT Manex Erdozainzi-ren azken fede-aitormena

Apirilaren azken astea. Nor ez da luratu eta zoratu aurtego gure udaberriaren lehertzeaz? Apirilaren azken astea izan da: Zuhaitzak, belarrak, loreak, lur osoa biziz eta kolorez bapatean lehertu dira, eguzkiaren indarrez.

Egun horietantxe, Bazkoarekin eta Euskal Herriko udaberriarekin batera lehertu da Manexen bihotz handia. Horixe zen gizona: Bihotz handi bat! Eta Bazko aste osoan Toulouse-ko klinikan lehertu beharrean egon ondoren, azkenean, apirilaren 29an ireki zen Manexen bihotza betiko udaberrirako eta piztuerarako. Euskal udaberria zabaltzean eta Bazko astea burutzean.

Bere azken fede-aitormena izan du; Sinesten dut bere poema abestuz hiz dela esan daiteke:

Loreak loretze betean  
fruituak fruitutze betean  
zuhaitz eta harri eta burdin  
lurraren lurtatze mugimendu  
daldaran  
mendiak eta itsasoak  
izaki eta gizaki guziak  
izadiaren ekilibrio betean irau-  
nen dutenean.....  
sinesten dut  
gizonaren zoriontze betean

Herria -2.000-Elizak lagun handi

bat galdu du. Agian irakurle gehienek ez zuten Manex ezagutzen; bertako orrialdeetan ezin izan diote ere sarritan irakurri; baina hortxe ikusi dute haren izena aldizkariaren hasieratik bertatik lagunen eta lankideen artean. Ezagutzen duenak ba daki Manex-ek ez duela bere izena eman, nabarmentzearren edo; ez zen horietakoa. Beste hainbat eginkizunek ez diote segurenik betarik utzi gure aldizkarian lan handirik emateko; baina hasieratik bertatik gogoz eskaini zizkion bere euskarria eta laguntza moralak.

Euskal Herriaren askapenean sinesten zuen. Horretarako ekinean eta borrokan ari direnek haren laguntza eta lankidetzaz zabalak eduki dituzte; alor

guztietan (sozialean, kulturazkoan, Elizarenen, bai eta politikoan ere) hortxe egon da Manex bere hitza eta bizitza eskainiz. Herri zapaldu eta ukatu honen sufrimendua salatu du, borroka agertu du, itxaropena kanpatu du, askatasuna aldarrikatu du.

Ahantzi nahi ditut etxipen kantuak  
Herri zapaldu horren intziri-nigarrak  
Taigabe daramagun burruka gogorrek  
Dakarzki berarekin hazi eman-korrek...

Mespretxu zapalkuntza kalapitahauzi  
Herri ukatu baten morroi marka guzi  
Dator Askatasuna hodeiak doatzi  
Ager gaiten dantzara bihar edo etzi!

Orain dela hainbat urte, han Kontzilioaren ondoren, Iparraldeko Kristau euskaldun multzo batek oinarriko elkarre bat sortu zuen, beren haurrak euskaraz fedean hazteko eta beren fedea euskaraz adieraz ahal izateko. Fededunak zuen izena elkarre. Euskara bazterturik zedukan Eliz hierarkiari aurrez aurre egin behar izan zion. Mugimendu zabala izan zen lehen urteetan; klase zapalduen eta herriaren borrokekiko kristauen atxekimendua eta ekintza bultzatu zuen; gerora, joera kontserbakorrek gailendu ziren. Hasiera hartan Manex izan zen elkarrearen sortzaileetako eta eragileetako, horren aldizkaria argitaratuz; Iparraldeko Herriz Herrialdizkari ezkertiar eta abertzalearen zuzendaria izan da hil arte; Amnesty International erakundearen eskuhartu izan du; hainbat euskal aldizkaritan idatzi du, eta euskal literaturan ezaguna izan da, poeta eta nobelagile gisa; Frantziskotarren Probintziala izan kotarren elkartasuna eta elkarlana bultzatzen eta areagotzen bere bizitzako asmo eta goiburua nagusietakoa, hikuntzaren, kulturaren, politikaren eta Elizaren mailkoa.

Mundu berria bezala, Euskal Herriaren nortasuna eta askatasuna, lanaren eta borrokaren bidez lortuko zirela uste zuen, gizonaren zuzentasunare, askatasunaren eta amodioaren aitomenarekin batera:

Esperantzak  
gizon guzien  
izerdiaren izerdiaz  
burrukaren burrukaz  
mundu berri bat  
erdiko duenean....  
sinesten dut  
gizonaren zuzentasun betean  
gizonaren askatasun betean  
gizonaren amodio betean.

.....

Lagun irekia eta adiskide zabala izan da Manex. Hainbat borrokalarirefuxiatuk ezagutu du haren konfiantza, bihotz handia eta laguntza.

Frantziskotar xaloa zen: harrera onetako, irripar gozokoa, entzute lasaia; pobreen eta zapalduen aldeko aukera zintzo eta tinkoa egina.

Poeta zen, ezadiaren ederra eta herriaren espernatza kantatzen zekiena. Euskaraz kantatu dio Euskal Herriari.

Fededun sakona eta sarkorra zen, Jainkoaren kreazioan Jainkoa aurkitu zuena; lurra, izadia, gizona, herria sinestean, Jainkoaren amodioa aitortu diguna.

Horregatik Manexen hiletakoan, Behe Nafarroako Donapaleun, hainbat lagun, adiskide eta frantziskotar anaiak eman zion azken agurra; eta hantxe egon ziren bertsolariak, eta Peio eta Pantxoa kantariak, urtean abestu eta zabaldu duten Manexen Sinesten dut poema berriro kantatzeko. Hantxe ginen haren fadearekin eta itxaropenarekin bat egiteko:

Loreen loretze betean  
fruituen fruitutze betean  
lurraren lurtatze mugimendu daldaran  
izaki eta gizaki guziak  
irautearen betean dantzatuko direnean...  
sinesten dut  
hastapeneko, gaurko eta betirako  
Amodio haren Izenean  
eta, berriz ere, deituko diot:  
Biziaren Jaun Goikoa  
hastapenetik betirakoa...

Sinesten dut.

Manexen azken fede-aitormena.  
Agur!

Paulo Agirrebaltzategi

